


MOBI ETA METODO ZIENTIFIKOA

Mobi oso kezkatuta dago bere landareetako bat hiltzen ari delako nahiz eta berak egunero ureztatzen duen. Bere lagun Tim-ek metodo zientifikoa erabiliz, arazoa konpontzen lagunduko dio. Osatu hemen behean Mobik eta Tim-ek eman dituzten pausuak.



1. Zein da **BEHATU** duten arazoa? Aukeratu:
 - ☐ Mobik landare asko ditu.
 - ☐ Mobiren landarea zizare batek jan du.
 - ☐ Mobiren landarea hiltzen ari da, ureztatzen duen arren.
2. Zein da euren buruari egin dioten **GALDERA** orduan?
 - ☐ Zergatik ez ditu landareak oparitzen Mobik?
 - ☐ Mobiren landarea zizare batek edo bik jan dute?
 - ☐ Zergatik ari da landarea hiltzen Mobik egunero ureztatzen badu?
3. Mobik eta Tim-ek landarearen egoera aztertu ondoren **HIPOTESI** bat egin dute, zein?
 - ☐ Pikondoak astean behin ureztatu behar dira.
 - ☐ Pikondoak ez dira ureztatu behar.
 - ☐ Pikondoak hilean behin ureztatu behar dira.

4. Zein uste duzu dela Mobik eta Tim-ek euren hipotesia frogatzeko egindako **PLANGINTZA**?

- ☐ Pikondo batzuk hartu eta batzuei jaboia bota, beste batzuei gatza eta besteei ura.
- ☐ Pikondo batzuk hartu eta astean zehar ur kantitate desberdina bota bakoitzari.
- ☐ Pikondo batzuk hartu eta pikuak ateratzen badira, jan.

5. Elkartu landarea eta bakoitzari botako dioten ur kantitatea **ESPERIMENTAZIOA** egiterakoan:



Astean hirutan ureztatuko dute.



Astean behin ureztatuko dute.




Ez dute ureztatuko.




Egunero ureztatuko dute.

Zenbat denbora erabiliko dute esperimentazioa egiteko? _____

6. **EMAITZAK AZTERTZEAN**, zer ikusi dute gertatu zaiola landare bakoitzari? Elkartu.



Lehortu egin da.



Primeran dago.



Ez dago osasuntsu.



Ondo dago.

7. Zein izan da, beraz, emaitzak aztertuta ondoren ateratako **ONDORIOA**?

- ☐ Pikondoak hobeto hazten dira astean behin ureztatzen baditugu.
- ☐ Pikondoak hobeto hazten dira egunero ureztatzen baditugu.
- ☐ Pikondoak hobeto hazten dira ez baditugu ureztatzen.